BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3929

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 24koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkariarena, ondoren zehaztutako proiektuak eragindako zenbait finka okupatu aurretiko aktak jasotzeko deialdia egiteko dena: Mondragon-San Prudencio, 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoak eragindako zortasun-zerrenda zabaltzea, 1. euskarria eta 43. euskarriaren tartean, Arrasate eta Bergarako udalerrietan. Erref.: 24055/AT-H-2011-123.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2013ko otsailaren 21eko Ebazpenez, herri-onurakotzat deklaratu zen, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uk eskatuta, Mondragon-San Prudencio 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoak eragindako zortasun-zerrenda zabaltzea 1. euskarria eta 43. euskarriaren tartean, Arrasate eta Bergarako udalerrietan.

Deklarazio horrek, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan (1997-11-28ko BOE) xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar izatea eta okupazioa, gainera, presaz egin behar izatea. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro ondorioekin.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betetzearren, eraginpeko ondasun eta eskubideen titular eta jabeei dei egitea erabaki du Gipuzkoako Lurralde ordezkariak, eta batzar lekutzat Arrasateko Udala jartzea erabaki du, hain justu ere aipatu ondasunak okupatu aurretiko aktak jasotzeko, eta bidezko bada behin betiko okupatzeko. Beharrezkoa izanez gero, linea jarriko den lekura bertara joan daiteke.

Eragina jasango duten ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak, eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Okupazioa egin aurreko aktak 2013ko urriaren 21ean egingo dira; dena dela, titularretako bakoitzari jakinaraziko zaio, horretarako zitazio-zedula bidalita, aktak zein lekutan, zein egunetan eta zein ordutan egingo diren. Horrez gain, egin beharreko gainerako argitalpenak ere egingo dira, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluari jarraituz.

Desjabetzeko espedientean, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uk onuradun izaera hartuko du.

Era berean, argitaratutako zerrenda horretan agian agertzen ez direla-eta, eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsonek, egoki iritzitako alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, eragina jasango duten ondasun eta eskubideen zerrenda horretan egon litezkeen okerrak zuzentzearren, horretarako bakarrik. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, Donostia - 20006), eta hori egiteko

epea ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko egunean amaituko da. Hori guztiori halaxe da Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Donostia, 2013ko uztailaren 24a.

Lurralde-ordezkaria,
JAVIER LÓPEZ LARRINAGA.

Erref.: 24055/AT-H-2011-123

Arrasate eta Bergara udalerrietan Mondragon-San Prudencio, 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren (mota: zirkuitu bakuna), 1. euskarria eta 43. euskarriaren tartean, zortasun-zerrenda zabaltzeko proiektua.

Finka (proiek-tuaren arabera)	Katastroko datuak Pol.-partzela	Udalerria	Jabea	Helbidea	Hila	Eguna	Ordua
3	05-115	Arrasate/ Mondragon	Luis Murgoitio Azcoaga M. Carmen Larumbe Larumbe	Ctra. De la Galea, 4 bj. izq. 48993 Getxo-Bizkaia Santa Marina, 3-2º izq. 20500 Arrasate/ Mondragon	Urria	21	9:00
78 eta 95	06-74 eta 06-90	Arrasate/ Mondragon	M. Carmen Gorosabel Ezkurra M. Purificación Gorosabel Ezkurra Jose M. Gorosabel Ezkurra Jose Julian Gorosabel Ezkurra M. Arantzazu Gorosabel Ezkurra Juan Ramón Gorosabel Fernández M. Luisa Ezkurra Zubizarreta	Errekalde kalea, 3 20500 Arrasate/ Mondragon Garagartza auzoa, 36. Lete Baserria 20500 Arrasate/ Mondragon Luis Briñas, 11-3º centro. 48013 Bilbo Zerkaosteta, 1-2º C 20500 Arrasate/ Mondragon	Urria	21	9:45
97	06-91	Arrasate/ Mondragon	Aitziber Arregui Iribecampos	Uherkape kalea, 10 planta baja dcha. 20500 Arrasate/ Mondragon	Urria	21	11:15